



KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEAREN ERABAKIA, ZEINAREN BIDEZ EZESTEN BAITA ARIZNABARRA KIROL-TALDEAK EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEKO DIZIPLINA-BATZORDEAK HARTUTAKO ERABAKIAREN AURKA AURKEZTUTAKO ERREKURTSOARI BURUZ FEDERAZIO HORREN APELAZIO-BATZORDEAK EMANDAKO EBAZPENAREN AURKA KIROL-TALDE HORREK AURKEZTU DUEN ERREKURTSOA.

Esp.: 17/2017 zk:

AURREKARIAK

LEHENA.- 2016ko abenduaren 4an Gazteen Euskal Ligaren 15. jardunaldiaren barruan Ariznabarra Kirol Taldeak eta Leioa Kirol Elkartek jokaturako partiduari buruz alegazio-idazki bat aurkeztu zuen aurrenekoak Euskadiko Futbol Federakundeko Diziplina Batzordearen aurrean, aipaturako federakundearen diziplina-araudiaren erregelamenduko 110. artikulua (*«Entzunaldi-izapidea»*) aurreikusitako epean. Idazki horretan, Ariznabarra Kirol Taldeak hau dio: *«Euskadiko Futbol Federakundearen intranetean datuak jarritakoan, egiaztatu da ez zirela ondo jaso bi ordezkapen, hori funtsezkoa izanik balizko bidegabeko jokalaria-zerrendarik egon ez zedin»*. Idazkian, Elkartek lekuko bidezko frogak eskatu du.

BIGARRENA.- Euskadiko Futbol Federakundearen Diziplina Batzordeak informazio-eginbideak abiaraztea erabaki zuen 2016ko abenduaren 7an, eta Leioa Kirol Elkarteari jakinarazi zion Ariznabarra kirol-elkartek salaketa aurkeztu zuela kirol-elkarte horren ustezko bidegabeko jokalaria-zerrenda egoteagatik.



HIRUGARRENA.- Alegazioetarako emandako epean, 2016ko abenduaren 12an, partiduko epaileak hau azaldu zuen: «2., 3., 4. eta 5. alegazioei dagokienez, ordezkapenak apuntatzean ustez okerra egoteari buruz, partiduan zehar egin nituen oharrek eta ondoren aktan kopiatutakoak erakusten dute zuzen jaso izan zirela egindako ordezkapenak». Eta, aurrerago gehitu duenez, aktan jasotako guztia Leioa Kirol Elkarteko eta Ariznabarra Kirol Taldeko delegatuen aurrean erkatu izan zela, eta bietako inork ez zuela desadostasunik edo arbuiorik azaldu.

LAUGARRENA.- 2016ko abenduaren 20an Euskadiko Kirol Federakundearen Diziiplina Batzordeak honako hau erabaki zuen 2016ko abenduaren 4an Ariznabarra Kirol Taldearen eta Leioa Kirol Elkarteen artean Gazteen Euskal Ligan jokaturako partiduari buruz:

«Bi taldeek bidegabeko jokalaria-zerrenda zelairatu zuten partida horretan, Gazteen Euskal Ligako plantilla osatzen duten arauzko zazpi jokalaria baino gutxiagorekin jokatu zutelako. Horregatik, bi taldeei galdutzat emango zaie aipaturako partidua, eta 150 euroko isun bana jarriko zaie EFFren Araudi Orokorraren 88. artikulua eta EFFren Diziiplina Araudiaren 46. artikulua betez».

BOSGARRENA.- Ebazpen zehatzailearen jakinarazpena jaso ondoren, Ariznabarra Kirol Taldeak errekurtsua jarri zuen, 2017ko urtarrilaren 1ean, Euskadiko Futbol Federakundearen Diziiplina Batzordearen ebazpenaren aurka federazio horren Apelazio Batzordearen aurrean. Errekurtsio-idazkian frogatutako aurkezteko eskatu zuen (agirien eta erreproduzio bideografikoaren bidezko frogak), aurretik proposatu ez zena.

SEIGARRENA.- Euskadiko Futbol Federakundearen Apelazio Batzordeak, 2017ko urtarrilaren 3an, ezetsi egin zuen Ariznabarra Kirol Taldeak aurkeztutako errekurtsua. Apelazio Batzordeak, ebazpenean, federazio horren



diziplina-araudiaren erregelamenduaren 120. artikulua aipatzen du: «*Gora jotzean ezin dira agiri edo froga-tresna gisa aurkeztu auzialdian aurkezteko eskueran egonik 110.2 artikuluan ezarritako preklusio-epearen barruan erabili ez ziren horiek*»; horrenbestez, ezin da epez kanpo eskatu den froga bat onartu.

ZAZPIGARRENA.- 2017ko urtarrilaren 25ean idazki bat jaso zen Kirol Justiziako Euskal Batzordearen idazkaritzan, Ariznabarra Kirol Taldeko presidentek sinatuta; haren bidez errekurtsua aurkeztu zuen Euskadiko Futbol Federakundeko Apelazio Batzordearen 2017ko urtarrilaren 3ko ebazpenaren aurka. Ebazpen horretan ezetsi egiten zen aipatu taldeak Euskadiko Kirol Federakundeko Diziplina Batzordeak 2016ko abenduaren 20ko Ebazpenaren aurka aurkeztu zuen errekurtsua.

Idatzian, Ariznabarra Kirol Taldeak adierazi du akatsak egon zirela Euskadiko Futbol Federakundeko Diziplina Batzordeak onartutako ebazpenaren testuan; nonbait, ebazpenaren III. aurrekarian azaltzen da talde horrek ez zuela alegaziorik aurkeztu Euskadiko Futbol Federakundeko Diziplina Batzordearen aurrean erregelamenduaren 110. artikuluan («*Entzunaldi-izapidea*») ezarritako epean, nahiz eta espedientean aurkeztu izan zela ageri eta halaxe jasota egon ebazpenaren III. aurrekarian bertan, lehen oinarrian zehazki.

ZORTZIGARRENA.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak izapidetzeko onartu zuen errekurtsu hori, urriaren 18ko 310/2005 Dekretuaren 16.4 artikuluan oinarriturik, eta Euskadiko Kirol Federakundeari espedientea eskatzea ere erabaki zuen; horrez gain, alegazioak aurkezteko izapidez gain, aukera ere eman zion, hala bazegokion, egoki zeritzen froga-eginbideak aurkezteko.



BEDERATZIGARRENA.- Leioa Kirol Elkarteari ere igorri zitzaion Ariznabarra Kirol Taldeak aurkeztutako errekurtsua, bidezkotzat jotzen zituen alegazioak aurkez zituan.

HAMARGARRENA.- 2017ko otsailaren 6an Euskadiko Kirol Federakundeak bidalitako espedientea jaso dugu.

ZUZENBIDE-OINARRIAK

LEHENA.- Kirol Justiziako Euskal Batzordearen esku-hartzea hauetan xedatutakoan oinarritzen da: Euskal Kirolaren Legearen (ekainaren 11ko 14/1998) 138.a) artikulua –106.2 artikuluekin lotuta– eta adierazitako Batzordea arautzen duen urriaren 18ko 310/2005 Dekretuaren 3.a) artikulua.

BIGARRENA.- Euskadiko Futbol Federakundearen Araudi Orokorren 88.3 artikulua dioenaren arabera, *«Taldeak, gutxienez, zazpi jokalariz eratuta egongo dira eta jokatzeko duten kategoriako plantillakoak izango dira. Edozein arrazoiengatik, jokalaria baten kanporatzea edo min hartuagatik ordezkatzeko balite, taldea aurreko puntuan azaldutako zazpi jokalaririk baino gutxiagorekin geratuko balitz, arau-haustea egingo du, bidegabeki osatuta egoteagatik».*

HIRUGARRENA.- Euskadiko Kirol Federakundearen Diziplina Araubidearen Erregelamenduko 46.1 artikulua hau xedatzen du: *«Jokalaria batek taldean bidegabeki jokatzeko badu, partiduan parte-hartzeko arauzko betekizunak ez betetzeagatik, partidua galdutzat emango zaio taldeari».* Aipatu 46. artikulua 3 zenbakiaren arabera, *«Artikulu honetan aipatzen diren arau-hausteren bat denean, hori salatzen legatutako egongo dira ustezko urratzailearen maila*



duten edo atal berekoak diren taldeak eta, halakoetan, eskumena duen diziiplina-organoak dagokion prozedura abiarazi behar du».

LAUGARRENA.- Euskadiko Kirol Federakundeko Diziiplina Araubideko Erregelamenduaren 110. artikulua era honetan arautzen du entzunaldi-izapidea: «*1. Aurreko artikuluan aipatzen diren jardunbideetan, lehiaketen ohiko garapenerako Batzordearen berehalako erabaki baten beharrean diren kasuetan, entzunaldi-izapidea interesdunei aurretik errekerimendurik egin gabe egingo da, eta Batzorde horren aurrean aurkeztuko dira, ahoz edo idatziz, partidaren aktan eta egon daitezkeen beste eranskinetan jasotzen diren gertakari buruzko alegazioak, eskubidea baitute egokiak irizten zaizkien aurkezteko, dagozkion frogekin batera, hala badagokio.*

2. Eskubide hori gauzatzeko epea amaituko da partidaren egunetik kontatzen hasi eta bigarren lanegunean, 18:00etan. Une horretan diziiplina-organoaren idazkaritzan egon behar dute alegazio guztiek.

3. Epe berean amaituko dira jokalarien arauz kanpoko parte-hartzea dela-eta aurkez daitezkeen erreklamazioak, baina arau-haustea eman izan balitz ere partiduaren emaitza ontzat emango da, baldin eta horiek ez badira aurkeztu izan aipatu epearen barruan».

BOSGARRENA.- Euskadiko Kirol Federakundeko Diziiplina Araubidearen Erregelamenduko 120. artikulua honela dio: «*Gora jotzean ezin dira agiri edo froga-tresna gisa aurkeztu auzialdian aurkezteko eskueran egonik 110.2 artikuluan ezarritako preklusio-epearen barruan erabili ez ziren horiek».*

SEIGARRENA.- Aurkaratutako ebazpena zuzenbidearen araberakoa edo kontrakoa den erabakitzeke, gertakarien frogen gaia ere argitu behar da.



Kasu honetan, federazioaren zigorra eragiten duten gertakari faktikoak epailearen aktaren bidez egiaztatzen dira, dokumentu horretan jasotzen baitira federazioaren organo eskudunak gerora gaitzetsi eta zigortu zituen ekintzak.

Jakina denez, epailearen aktak egiazkotasun-presuntzioa du. Horrek esan nahi du presuntzio horren kontra egiteko froga zehatz, eraginkor eta guztiz sinesgarria aurkeztu behar dela. Izatez, eztabaidarik gabeko doktrina da epailearen aktak egiazkotasun-presuntzioa izatea, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak dioen bezala: *«izendatutako epaileak aktan jasotzen duen gertakarien kontakizunaren inpartzialtasuna eta objektibotasuna egiazkotzat hartzen dira bi klubekiko arrotza delako»* (2003ko urriaren 7ko Epaia, JUR 2003/104967).

Zentzu berean, Euskadiko Kirolaren Legearen (ekainaren 11ko 14/1998) 50. artikulua, kirol-lehiaketan gidaritza epaile mota desberdinei esleitu eta gero, adierazten du hori egiten duten bitartean hartutako erabakiak egokitzen joko direla eta epaileen aktak lehiaketak normaltasunez garatzeko beharrezko bitarteko dokumentala izango direla.

Aztergai dugun kasuan, ordea, errekurtsogileak gertakariei buruzko beste bertsio bat eman du, eta epailearen aktaren egiazkotasun-presuntzioren kontra egiten du froga bideografiko bat proposatuz; froga hori jada eskatu zuen, halere, Euskadiko Futbol Federakundearen Diziplina Batzordeak emandako ebazpenaren aurka federazio horren Apelazio Batzordearen aurrean aurkeztutako errekurtsioan.

Proposaturiko frogari dagokionez, esan behar da epailearen aktan ez zela jasota geratu aipatzen den epailearen ustezko akatsaren inguruko alegaziorik.



Ondorio posible bakarra, beraz, inpugnatutako diziiplina-zigorra ezartzea justifikatzen duten gertakariak frogatutzat jotzea da, eta errekurtsuan proposatutako froga-eginbideak gaitzetsi egin behar dira, beharrezkoak ez direlako.

Horren guztiaren ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak, honako hau

ERABAKITZEN DU

Ezestea Ariznabarra Kirol Taldeak Kirol Justiziako Euskal Batzorde honetan aurkeztutako errekurtsoa, zeinaren bidez aurkaratzen baitzuen Euskadiko Futbol Federakundeko Diziiplina Batzordeak 2016ko abenduaren 10ean hartutako erabakiaren aurka talde horrek aurkeztutako errekurtsoari buruz federazio horretako Apelazio Batzordeak 2017ko urtarrilaren 3an emandako ebazpena.

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordean, hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute Bilboko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritakoari jarraituz.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko apirilaren 11



José Luis Aguirre Arratibel

KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEKO PRESIDENTEA